

Abenduaren 10eko 90/1996 FORU DEKRETUA, Ogasun eta Finantza Departamentuan Mugaldeko Langileen Erregistroa sortzen duena.¹

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru dekretuaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

1. artikulua. Mugaldeko Langileen Erregistroa sortu eta adskribatzea.....	2
2. artikulua. Mugaldeko Langileen Erregistroan izena ematera behartuta dauden pertsonak.....	2
3. artikulua. Mugaldeko Langileen Erregistroan alta hartzea.....	3
4. artikulua. (Edukirik gabe)	4
5. artikulua. Mugaldeko Langileen Erregistroa aldatzea.	4
6. artikulua. Mugaldeko Langileen Erregistroan baja ematea.	4
XEDAPEN IRAGANKORRA	5
AMAIERAKO XEDAPENA.....	5

¹ Abenduaren 10ko 16/2014 FORU ARAUAK, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, bere xedapenean indargabetzaile bakarraren bigarren apartatuan, zera ezartzen du, aipaturiko foru arauan bildutako ahalmenak direla bide emandako arauak indarrean jarri arte, indarrean jarraituko dutela Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren apirilaren 26ko 2/1999 Foru Araua garatzeko erregelamenduzko xedapenek, foru arau hartan xedatutakoaren aurkakoak ez diren heinean.

Errenta eta Ondarearen gaineko Zergen alorrean ezarpen bikoitza saihesteko Espainiak eta Frantziak izenpeturiko Hitzarmenak², estatu kontratatzaile bateko nahiz bietako egoiliarrei aplikatzekoa denak, xedatuta uzten du bere 15. artikulua 4. atalean mugaldeko langileek menpeko lanarengatik soldatak, alokairuak edo bestelako ordainsariak jasotzen dituztenean bizi diren estatu kontratatzailean bakarrik ordaindu beharko dituztela zergak.

Aipatu 15.4 artikuluan xedatutakoa aplikatzearen, mugaldeko langileek ezinbestez frogatu beharko dute izaera hori dutela. Horretarako, eta Foru Dekretu honen bidez, Ogasun eta Finantza Departamentuan Mugaldeko Langileen Erregistroa sortzen da, izaera hori duten guztiek izena eman ahal izan dezaten.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATU DUT

1. artikulua. Mugaldeko Langileen Erregistroa sortu eta adskribatzea.

Errenta eta Ondarearen gaineko Zergen alorrean ezarpen bikoitza saihesteko Espainiak eta Frantziak 1973ko ekainaren 27an izenpeturiko Hitzarmenaren 15. artikulua 4. atalean xedatutakoa aplikatzearen ondorioetarako, Ogasun eta Finantza Departamentuan Mugaldeko Langileen Erregistroa sortu egiten da Zergen Kudeaketa Zerbitzuaren ardurapean.

2. artikulua. Mugaldeko Langileen Erregistroan izena ematera behartuta dauden pertsonak.³

1. Aurreko artikuluan sortutako Mugaldeko Langileen Erregistroan honakook eman beharko dute izena, alegia, mugaldeko langileak izateko behar diren baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoek, baldin eta Ogasun eta Finantza Departamentuari izaera hori agertarazi nahi badiote Espainiak eta Frantziak Errenta eta Ondarearen gaineko Zergen alorrean ezarpen bikoitza saihesteko 1973ko ekainaren 27an izenpeturiko Hitzarmenaren 15. artikulua 4. apartatuan xedatutakoa aplikatua izan dadin.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, pertsona fisikoek honako baldintza hauek bete beharko dituzte mugaldeko langileak izateko:

² 1997ko ekainaren 12ko 140 zk.ko BOEn (Estatuko Aldizkari Ofiziala) argitaratu zen Espainiako Erresuma eta Frantziako Errepublikaren arteko Hitzarmena, ezarpen bikoitza saihestekoa eta kapitalen ihesari eta zerga iruzurrari aurea hartzekoa, Errenta eta Ondarearen gaineko Zergen alorrean. Hitzarmena 1997ko urriaren 10ean sinatu zen, 1973ko ekainaren 27ko Hitzarmenaren xedapen batzuek indarrean jarraitzea eragotzi gabe.

³ Artikulu hau otsailaren 3ko 7/1998 Foru Dekretuaren 9. artikulua aldatu du 1998ko otsailaren 15etik aurrerako ondorioekin. Foru dekretu honek hainbat artikulua aldatzen ditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduetan nahiz Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, Mugaldeko Langileen Erregistroa eta zentsu aitortpenak arautzen dituzten foru dekretuetan.

a) Ohiko bizilekua Frantzian edukitzea.

b) Gipuzkoako Lurralde Historikoan soldatak, alokairuak edo bestelako ordainsariak jasotzea besteren kontura lan egiteagatik. Salbuetsita daude ondoko hauek:

- Asistentzia dietak eta antzeko ordainsariak, Gipuzkoan kokaturiko sozietateetako administrazio kontseilukideek edo horien ordezeko batzarkideek jasotakoak.

- Lurralde administrazio publikoetako funtzionario eta enplegatuek edo zuzenbide publikoko pertsona juridikoetakoek jasotzen dituzten ordainsariak.

- Lurralde administrazio publikoei edo zuzenbide publikoko pertsona juridikoei zerbitzuak prestatzeagatik ordaindutako pentsioak, espainiar nazionalitatearik ez duen pertsona fisiko batek jasotzen dituen izan ezik.

c) Beren ohiko bizilekura egunero itzultzea.

3. artikulua. Mugaldeko Langileen Erregistroan alta hartzea.⁴

1. Mugaldeko Langileen Erregistroan alta hartzea interesatuak eskatu beharko du Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak Foru Aginduz onartuko duen erdua aurkeztuz eta honako dokumentazioa erantsiz:

a) Ohiko bizilekua Frantzian duela frogatzen duen ziurtagiria, bertako agintari eskudunak luzatua.

b) Gipuzkoan lortutako lan etekinak Frantzian zergapetzen direla frogatzen duen ziurtagiria, bertako agintari eskudunak luzatua.

c) Gipuzkoan lan emalea den pertsona edo entitateak luzatutako ziurtagiria, ondoko datu hauek jasoz: izen-abizenak edo sozietatearen izena, NA edo IFK, helbide fiskala, eta astean edo hilean mugaldeko langileari ordaindutako etekin gordinak, gauzen bidezko ordainketak eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak ere barne.

2. Mugaldeko Langileen Erregistroan alta hartzeko eskaera behin aurkeztuz gero, Zuzeneko Zergen Kudeaketa Zerbitzuak behar diren baldintzak betetzen direla egiaztatuko du eta, ondoren, dagokion inskripzioa egingo du aipatu erregistroan.

3. Mugaldeko Langileen Erregistroan alta hartzeak frogatuta utziko du eskatzaileak izaera hori duela eta bidezkoa dela, beraz, Espainiak eta Frantziak Errenta eta Ondarearen gaineko Zergen alorrean ezarpen bikoitza saihesteko 1973ko ekainaren 27an izenpeturiko Hitzarmenaren 15. artikulua 4. apartatuan xedatutakoa aplikatzea. Horren ondorioak hauetxek izango dira:

a) Mugaldeko langileak Gipuzkoan lortzen dituen lan etekinak zergapetu gabe geratuko dira.

⁴ Artikulu hau otsailaren 3ko 7/1998 Foru Dekretuaren 10. artikulua aldatu du 1998ko otsailaren 15etik aurrerako ondorioekin. Foru dekretu honek hainbat artikulua aldatzen ditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduetan nahiz Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, Mugaldeko Langileen Erregistroa eta zentsu aitortpenak arautzen dituzten foru dekretuetan.

b) Mugaldeko langileari aipatu lan etekinak ordaintzen dizkion pertsona edo entitateak ez du horien gainean inolako atxikipen edo konturako sarrerarik egin beharko.

4. Mugaldeko Langileen Erregistroan alta egiaztatu ondoren, Zuzeneko Zergen Kudeaketa Zerbitzuak ziurtagiri bat luzatuko dio eskatzaileari mugaldeko langile izaera hirugarrenen aurrean frogatzea behar diren ondorioetarako.

5.⁵Frantzia ohiko bizilekua izateko baimenak balioa duen lehen egunetik aurrera sortuko du eragina Mugaldeko Langileen Erregistroan hartutako altak.

4. artikulua. (Edukirik gabe)⁶

5. artikulua. Mugaldeko Langileen Erregistroa aldatzea.

1. Alta eskatu edo berritzeko ereduetan adierazitako ohiko bizilekuak edo besteren konturako lan tokiak aldatetaren bat izan badute, derrigorrezkoa izango da Mugaldeko Langileen Erregistroan aldatzea eskaera aurkeztekoa.

2. Mugaldeko Langileen Erregistroa aldatzeko eskaera Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak Foru Aginduz onartuko duen ereduari jarraituz egingo da, eta eskaerarekin batera ohiko bizileku berria zein den edo besteren konturako lan toki berria non dagoen egiaztatu beharko da, gertatu den aldatetaren arabera.

6. artikulua. Mugaldeko Langileen Erregistroan baja ematea.

1. Interesatuak eskatuta edo Zuzeneko Zergen Kudeaketa Zerbitzuak ofizioz erabakita eman ahal izango da baja Mugaldeko Langileen Erregistroan.

2. Mugaldeko Langileen Erregistroan baja emateko eskaera Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak Foru Aginduz onartuko duen ereduari jarraituz aurkeztuko da.

Mugaldeko langileak borondatez aurkeztu ahal izango du baja eskaera hori, edo derrigorrez baldin eta aurreko 2 artikuluen 2 apartatuan mugaldeko langilea izateko jarri diren beharrezkoak jadanik betetzen ez baditu.

3.⁷ Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak ofiziozko baja emango du Mugaldeko Langileen Erregistroan, inskribatutako pertsonak aurreko artikuluen

⁵ 5. apartatu hau abenduaren 22ko 105/2003 FORU DEKRETUaren Xedapen Gehigarriaren 1 zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena, eta abenduaren 10eko 90/1996 Foru Dekretuak, Ogasun eta Finantza Departamentuan Mugaldeko Langileen Erregistroa sortzen duena, aldatu ditu. Aipatu Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (GAO 2003-12-31).

⁶ 4. artikulua hau abenduaren 22ko 105/2003 FORU DEKRETUaren Xedapen Gehigarriaren 2 zenbakiak edukirik gabe utzi du. Foru Dekretu honek abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena, eta abenduaren 10eko 90/1996 Foru Dekretuak, Ogasun eta Finantza Departamentuan Mugaldeko Langileen Erregistroa sortzen duena, aldatu ditu. Aipatu Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (GAO 2003-12-31).

⁷ 3 apartatu hau abenduaren 22ko 105/2003 FORU DEKRETUaren Xedapen gehigarriaren 3 zenbakiak aldatu du. Foru Dekretu honek abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena, eta abenduaren 10eko 90/1996 Foru Dekretuak, Ogasun eta Finantza

2 apartatuan mugaldeko langilearen izaera hartzeko jarritako beharkizunak betetzeari utzi jakin duenean.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Foru Dekretu hau indarrean sartzean mugaldeko langileen izaeraz gozatzeko ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoek hiru hilabeteko epea izango dute, foru dekretu hau argitaratzen den egunetik hasita, erregistroan alta ematea eskatzeko, baldin eta Espainiak eta Frantziak Errenta eta Ondarearen gaineko Zergen alorrean ezarpen bikoitza saihesteko 1973ko ekainaren 27an izenpeturiko Hitzarmenaren 15. artikulua 4. atalean xedatutakoa beraiei aplikatzea nahi badute.

2. Foru Dekretu honek 4. artikuluan xedatutakoaren kaltetan gabe, Mugaldeko Langileen Erregistroan 1996an zehar hartzen den alta 1998ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

AMAIERAKO XEDAPENA

1. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaio Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

2. Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Departamentuan Mugaldeko Langileen Erregistroa sortzen duena, aldatu ditu. Aipatu Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.(GAO 2003-12-31).

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Otsailaren 3ko 7/1998 FORU DEKRETUA, hainbat artikulua aldatzen dituen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduetan nahiz Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, Mugaldeko Langileen Erregistroa eta zentsu aitordenak arautzen dituzten foru dekretuetan.(1998-02-06ko GAO).*
 - 9.artikuluak 2. artikulua aldatzen du.
 - 10. artikulua 3. artikulua aldatzen du.
- *Abenduaren 22ko 105/2003 FORU DEKRETUA, honako dekretuak aldatzekoa: abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena, eta abenduaren 10eko 90/1996 Foru dekretua, Ogasun eta Finantza Departamentuan Mugaldeko Langileen Erregistroa sortzen duena (GAO 2003-12-31)*
 - Bere Xedapen Gehigarriak 3.artikuluaren 5 apartatua eta 6.artikuluaren 3 apartatuak aldatu eta 4.artikulua edukirik gabe utzi du.